


Ekin diote EKTko elkarrizketak emititzeari

2017/06/02

Ekin diote EKT aditu tituluaren 6 edizioko elkarrizketak emititzeari Goiena Telebistan. Ostegunero emitituko du EKTri buruzko elkarrizketa berri bat. Sortaren lehenengo atalean, Ana Gandara elkarrizketatu dute.



Gandarak euskal kultura sakon ikertu du bere tesiarekin. Lan horretan aztertu du euskal ondare kulturalaren moldatzea (1960-1990) eta egungo kultur sistemaren oinarriak.

Ana Gandararen esanetan, "ulertu nahi nuen gaur egungo euskal kulturaren oinarriak zein ziren, eta oinarrien alderdi nagusienetako bat tradizioa izaten da; iruditu zitzaidan abiapuntu garrantzitsua eta ezinbestekoa zela gaur egungo egoera ulertzeko".

Elkarrizketak egin ditu Aitziber Aranburuzabala Goienako kazetaria eta aditu tituluko ikasleak.